

## ARRIBETIK UBARAKO BIDEA

*Tradizionalki bide honek bailarako herriak, Ubako auzoa eta Gorriti lotzen zituen. Gorritira iristeko gainditu beharreko desnibel handiaren eraginez (480 m inguru), eta Lekunberriko errepidea eraikitzearekin, ohiko bide hau baztertu egin zen.*

### *DESKRIBAPENA*

*Arribetik abiatuta, pinu baso eta hurriztien artetik, Ubako auzora iristen da. Pago eta gaztainondo mugarratu ugari dituen baso misto batetik jarraituz, Pagozelaietako zabalgunera iristen da, Gorritiko mugan. Zonalde hau ibilbideko altuena da, eta zaldi, ardi eta behiak dabiltzan larreak dira nagusi paisaian, non ehiztarien postuak ere ikus daitezkeen. Jaitsieran alertze birlandaketa zeharkatzen da lehenik, eta haritz amerikarrez osatutako bat ondoren, azkenik, Atallura iristeko. Bertatik, Araxes ibaiaren bazterretik doan xendatik Arriberaino iristen da.*

## CAMINO DE ARRIBE A UBA

Tradicionalmente este camino comunicaba los pueblos del valle con el barrio de Uba y el pueblo de Gorriti. El fuerte desnivel que había que salvar para llegar a Gorriti (unos 480 m.) y la construcción de la carretera por Lekunberri, hicieron que esta, hasta entonces, habitual vía de comunicación cayera en desuso.

### DESCRIPCIÓN

Desde Arribe entre bosques de pinos y bosquetes de avellanos se accede al barrio de Uba. Continuando por un bosque mixto con abundantes hayas y castaños trasmochos se llega a los rasos de Pagozelaieta, ya en la muga con Gorriti. En esta zona, que es la más elevada del recorrido, el paisaje está dominado por pastos con caballos, ovejas y vacas, donde es posible observar también casetas de cazadores. En el descenso se atraviesa una extensa repoblación de alerces, que continua con otra repoblación de roble americano hasta llegar a Atallu. Desde aquí por la ribera del río Araxes una senda conecta con Arribe.

# *Interes puntuak*
# *Lugares de interés*



### *UR-JAUZI "ELEKTRIKOA"*

*Anzubiaga errekak eratzen duen ur-jauzitik gertu Electra María zentral hidroelektrikoa zegoen, non Araitz bailarako lehenengo bonbilla pizteko energia sortu zen. 1975 urtera arte egon zen funtzionamenduan.*

### UNA CASCADA MUY "ELÉCTRICA"

En las proximidades de la cascada que forma el arroyo Anzubiaga se encontraba la antigua central hidroeléctrica Electra María, que suministró la energía para encender la primera bombilla del valle de Araitz. Dejó de funcionar en el año 1975.



### *PAGO ETA GAZTAINONDOAK: EHUNKA URTE ETA MUGARRATUAK*

*Bideko gaztainondo eta pagoak deigarriak dira beraien dimentsioengatik, bai altuera baita zabaleragatik ere. Gaztaina eta pagotxak gizakiaren nahiz ganaduaren elikaduran garrantzia handia izan dute, eta hauen egurra, baserrietako tximiniak elikatzeaz aparte, tresna eta eraikinak egiteko ezinbesteko lehengaia zen.*

### HAYAS Y CASTAÑOS: CENTENARIOS Y TRASMOCHOS

Destacan los impresionantes castaños y hayas tanto por sus dimensiones, en altura y anchura, como por su porte. Las castañas y hayucos han servido para el consumo humano y del ganado, y la madera ha alimentado las chimeneas de los hogares, siendo la materia prima empleada para fabricar utensilios, edificaciones, etc.



### *SANTA BARBARA ERMITA ETA GORRITIKO GAZTELUA*

*Santa Barbara mendiaren tontorrean izen bereko XVII. mendeko ermita aurkitzen da, XIII-XIV. mendeko Gorritiko gazteluaren arrastoen gainean eraikia. Gipuzkoa eta Nafarroako mugan toki estrategikoa zuen gazteluak, eta bertatik Gorrititik pasatzen zen Iruña eta Tolosa batzen zituen bidea zelatatzen zen.*

### ERMITA DE SANTA BÁRBARA Y CASTILLO DE GORRITI

En lo alto del monte Santa Bárbara se localiza la ermita del mismo nombre que data del siglo XVII y que se construyó sobre los restos del antiguo castillo de Gorriti (S.XIII-XIV). Situado en un punto estratégico, fronterizo entre Gipuzkoa y Navarra, desde este castillo se vigilaba el camino de Pamplona a Tolosa y el que pasaba por Gorriti.



### *KONIFERA HOSTOERORKORRA*

*Alertzea, Europa erdialdean jatorria duen espeziea, udazkenean hostoak galtzen dituen konifera bakarretakoa da. Azkar hazi eta erraz moldatzen da ingurune hauetara; horregatik, bere erabilera bultzatu eta zabaldu egin da Araitzen. Udazkenean horiz margotzen du paisaia, bailararen aniztasun kromatikoa aberastuz.*

### UNA CONÍFERA DE HOJA CADUCA

El alerce, una especie originaria de países centroeuropeos, es una de las pocas coníferas a las que se les cae la hoja en otoño. Su rápido crecimiento y fácil adaptación han impulsado y extendido su uso en Araitz. En otoño tiñe de amarillo el paisaje, enriqueciendo la variedad cromática del valle.



### *BEHATOKIA VIP ZONALDEAN*

*Pagozelaietako zabalgunetik jaisten den bideak balkoi edo behatoki natural batzuetara hurbiltzen gaitu. Bertatik, hodeirik ez dagoen egunetan Malloen ikuspegi paregabea eskaintzen da. Eskuinetik ezkerrera Balerdi (1197 m), Soilazbizkargaina (1430 m ) edo Ttutturre (1282m) mendiak nabarmentzen dira. Erriberako landaretzak Araxes ibaiaren nondik norakoaren zantzua ematen du bailara azpialdean, eta inguruan hainbat herri gune sakabanatu ikus daitezke.*

### UNA BALCONADA EN ZONA VIP

El descenso desde los rasos de Pagozelaieta nos acerca a extensas balconadas o miradores naturales desde los cuales, en días despejados se puede contemplar unas extraordinarias vistas de Malloak. De derecha a izquierda destacan impresionantes moles rocosas tan conocidas como el Balerdi (1197 m), Soilazbizkargaina (1430 m) o el Ttutturre (1282 m). La vegetación de ribera delata el trazado del río Araxes por el fondo del valle, y en su entorno se pueden ver los núcleos urbanos diseminados.

*Gure bide zaharretatik*
*Por nuestros viejos caminos*

1

# ARRIBETIK UBARAKO BIDEA
## Araitz - Betelu - Errazkin

# CAMINO DE ARRIBE A UBA
## Araitz - Betelu - Errazkin

***BETIKO BIDE ZAHARRAK*** **- CAMINOS TRADICIONALES**








**1. *ARRIBETIK UBARAKO BIDEA/* CAMINO DE ARRIBE A UBA**

| *DISTANTZIAK* / DISTANCIA | *DENBORA* / TIEMPO | *ZAILTASUNA* / DIFICULTAD |
|---|---|---|
| *9.380 m.* | *3 ordu eta 21 minutu* / 3h. 21min. | *Ertain-altua* / Media-alta |

**2. *BAILARAKO HERRIARTEKO BIDE ZAHARRAK /* ANTIGUOS CAMINOS ENTRE LOS PUEBLOS DEL VALLE**

| *DISTANTZIAK* / DISTANCIA | *DENBORA* / TIEMPO | *ZAILTASUNA* / DIFICULTAD |
|---|---|---|
| *20.200 m.* | *5 ordu eta 52 minutu* / 5h. 52min. | *Ertain* / Media |

**3. *MALLOA ETA ARALARRERAKO BIDEAK: Abategaina eta Belutatik /* CAMINOS A MALLOA Y ARALAR: por Abategaina y por Beluta**

| *DISTANTZIAK* / DISTANCIA | *DENBORA* / TIEMPO | *ZAILTASUNA* / DIFICULTAD |
|---|---|---|
| *13.100 m.* | *5 ordu eta 12 minutu* / 5h.12min. | *Altua* / Alta |

www.araitz.es
www.betelu.es

*Turismo informazio gunea* / Punto de información turística
*Beteluko Ostatua* / Hostal Betelu 948 513 026


FEADER
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE MEDIO AMBIENTE, Y MEDIO RURAL Y MARINO
Nafarroako Gobernua
FUNDACIÓN crana FUNDAZIOA
Cres Caminos Rurales
Consorcio del Valle del Roncal
Erronkari bailarako partzuergoa
Ayuntamiento de Araitz
Araitzko Udala
Ayuntamientos de Izalzu, Esparza y Jaurrieta y Concejo de Iciz
Itzaltzu, Espartza Zaraitzu eta Jaurrietako Udalak eta Izizeko Kontzejua




## 1. ARRIBETIK UBARAKO BIDEA / CAMINO DE ARRIBE A UBA

### MIDE *Txangoetarako informazioaren metodoa/* Método para la información de excursiones

*ORDUTEGIA/* HORARIO
*3 ordu eta 21 minutu* / 3h. 21min.

*IGOERA DESNIBELA/* DESNIVEL DE SUBIDA
*483 m.*

*JAITSIERA DESNIBELA/* DESNIVEL DE BAJADA
*483 m.*

*DISTANTZIA HORIZONTALA/* DISTANCIA HORIZONTAL
*9.380 m.*

*IBILBIDE MOTA/* TIPO DE RECORRIDO
*Borobila/* Circular

*NATURA-INGURUNEAREN GOGORTASUNA /* SEVERIDAD DEL MEDIO NATURAL
1

*ORIENTAZIOA IBILBIDEAN/* ORIENTACIÓN EN EL ITINERARIO
2

*ZAILTASUNA DESPLAZAMENDUAN /* DIFICULTAD EN EL DESPLAZAMIENTO
2

*EGIN BEHARREKO ESFORTZUA/* CANTIDAD DE ESFUERZO NECESARIO
3




### *JARDUTE EGOKIAK* - BUENAS PRÁCTICAS

*Ez piztu surik ezta egurrik moztu.*
No encender fuego ni cortar leña.

*Ez ibili motorizatutako ibiligailuekin, baimendutako guneetan izan ezik.*
No circular con vehiculos motorizados, excepto en los espacios autorizados.

*Ez aparkatu, baimendutako guneetan izan ezik.*
No aparcar, excepto en los espacios autorizados.

*Ez aldatu, moldatu edo eta kendu inguruneko elementurik.*
No alterar, modificar y/o retirar elementos del medio natural.

*Ez garbitu tresnarik ez eta ibilgailurik ibai, laku edo erreketan.*
No lavar utensilios y vehiculos en los rios, lagos o arroyos

*Ez utzi edo eta lurperatu zaborrik.*
No abandonar y/o enterrar basura.

*Isiltasunean ibiltzeak eta animalien ohiturak ezagutzeak, prismatikoak eramateak eta kolore deigarrietako jantzirik ez jazteak faunaren behaketa erreztuko dizu.*
Pasear en silencio y conocer los hábitos de los animales, llevar prismáticos y prendas de colores no llamativos facilitarán la observación de la fauna.

*Bidean aurkitzen dituzuen pertsonekin portaera ona izan. Elkarren artean laguntzen ahal gara.*
Ser educados con quien os encontréis por el camino. Todos nos podemos ayudar.

*Ibilbide honen erabilpena bakoitzak bere gain hartuko du.*
La utilización de este sendero se hara bajo la responsabilida de los usuarios.

*Txango bat hasi aurretik ibilbidearen zailtasuna eta eguraldiaren aurrikuspena aintzat hartu*
Antes de iniciar una excursión infórmese de la dificultad de la ruta y de la previsión del tiempo.

### *HITZAK* - LEYENDA

*Informazioa* Información
*Aparkalekua* Aparcamiento
*Ostatuak* Alojamientos
*Atseden guneak* Área descanso
*Mendia* Monte
*Begiratokia* Mirador
*Iturria* Fuente
*Eliza* Iglesia
*Baseliza* Ermita





*Arribeko Eliza*
Iglesia de Arribe


*Ur jauzia*
Cascada


*Baso mistoa*
Bosque mixto


*Santa Bárbara Ermita*
Ermita Santa Bárbara


*Pagozelaieta*
Pastos de Pagozelaieta


*Alertzeak*
Alerces


*Malloako bista*
Vista de Malloa


*Pagota Lizargaratetik*
Pagota desde Lizargarate


*Atalluko errota*
Molino de Atallu